

KOPENHAGEN ASTEBURU BAT IGAROTZEKO 2 LAGUNENTZAKO 10 EGONALDIREN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du. Hain zuzen, Kopenhagen asteburu bat igarotzeko 2 lagunentzako 10 egonaldi zozkatuko ditu.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Zozketan 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte. Horretarako, LABORAL Kutxaren txartela erabiliz gutxienez 300 €-ko erosketak egin beharko dituzte urtarrilean, eta beste 300 €-koak otsailean. LK Pay edo Apple Pay erabiliz gutxienez ordainketa bat egingez gero, partaidetza gehigarri bat eskuratuko dute.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleak, oparia jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

4.- Zozketa

Zozketa 2019ko martxoaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, zozketan ordezeko 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun balioduneko epean, saria ordezekoentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Kopenhagen asteburu bat igarotzeko 2 lagunentzako 10 egonaldi zozkatuko dira. Sariak irabazleen izenean bidaliko dira, bezero diren LABORAL Kutxaren bulegoetara.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta dagozkion zergak ordaindu beharko dira. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagozkion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

